



GREENPEACE

# KRISIA KOSTA ALA KOSTA 2024

ITSASERTZAREN EGOERAREN AZTERKETA  
KLIMA-LARRIALDIAREN ARRISKUEN AURREAN

EUSKADI

“CRISIS A TODA COSTA 2024. ANÁLISIS DE LA SITUACIÓN DEL LITORAL ANTE LOS RIESGOS DE LA EMERGENCIA CLIMÁTICA” TXOSTENETIK ATERATAKOA

**KLIMA-ALDAKETAK PRESIO  
HANDIAK JASATEN DITU  
KOSTALDEAN**



# EUSKADI

Itsaslabarrak nagusi diren 246 kilometroko itsasertzean, 33 kilometrotan bakarrik dago hondartza. Kostaldeak narriadurako zantzuak erakusten ditu leku askotan, industriaren zein hirigintzaren eraginaren ondorioz. Itsasertzaren % 12,8a artifizializatuta dago guztira, eta dagoeneko ez die herritarrei eskaintzen ingurumen-ondasun eta -zerbitzu baliiodunak eta doakoak.

Hirigintzaren boomaren urteetan proiektu-pilaketa gutxien jasan zuen itsasertzeko zatietako bat izan arren, dagoeneko itsasertzeko gunea babestu batean egin behar ez denaren adibiderik okerrenak mehatxatzen duela esan daiteke: **Urdaibaiko Biosferaren Erreserban beste Guggenheim museo bat** eraikitzeko proiektuak, hain zuzen ere.

Proiektuak bi egoitza eraikitzea aurreikusten du, horietako bat Muruetako ontzioletan, padurari irabazitako eta nazioarteko babesa duten lurretan. Gainera, Trantsizio Ekologikorako Ministerioak lurzoruak deskutsatzeko ardura saihestea

baimendu die ontziolei, eta kostaldearen babesa aldatu du instalazioak Urdaibaiko paduretatik 20 metrora eraiki ahal izateko. Balio ekologiko handia duenez, gunea babestuta dago eta, ondorioz, turistifikazioak eragin handia izango luke.

Greenpeace erakundeak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri du Muruetan itsasoko eta lehorreko jabari publikoa babesteko zorra murriztea onartzen duen Ministro Aginduaren aurka.

Azken hamarkadetan itsasertzaren kontserbazio-egoerari buruz egindako txosten guztietan agertu den kontu negatiboenetako bat, zalantzarik gabe, **Petronor** enpresak Barbadun itsasadarrean duen **instalazioa** da. Eusko Jaurlaritzak eta Trantsizio Ekologikorako Ministerioak Repsol enpresaren eskumendekoa babesten jarraitzen dute, enpresak ingurumenaren legeriari eta inguruko biztanleen osasunari iseka egiten jarraitzeko. Hondakinez eta isuriz betetako txerritegi bihurtu da Muskiz, instalazioak oso gas kutsatzaileak isurtzen baititu





findegiaren eta koke-instalazioaren bidez (sufre dioxidoa, adibidez).

Eusko Jaurilaritza **Lemoizko zentral nuklearreko** lurretan arrain-haztegi bat eraikitzea aztertzen ari da.<sup>1</sup> Iberduero (gero Iberdrola izango zena) ingurua leheneratzeko arduraduna izan beharko litzateke baina, horren ordez, inbertsio publiko handiko arrain-haztegi bat eraikitzea proposatzen da. Trantsizio Ekologikorako Ministerioak Kostaldean Legeak eskaintzen duen babesak kendu egin du berriro, eta zalantzan jartzen du bere lana kostaldea leheneratzea edo zenbait interesen zerbitzura egotea den.<sup>2</sup>

Akuikulturarekin lotuta dago, halaber, **Getarian hegalaburra gizentzeko haztegi** bat jartzeko Itsas Balfegó S.L. enpresaren eta Azti zentroaren proiektua. Mediterraneoko jardunbide txarrak inportatzen hastea da asmoa, non Balfegó enpresak beste instalazio batzuk dituen dagoeneko. Kantauri itsasoan betidanik erabili izan diren artisau-arrantzako jardunbide egokiak, mundu osoan jasangarritasuneko eredu direnak, bereizi gabeko inguraketa-arrantzak ordeztuko lituzke. Gizentzeko kaiola izugarriek sortutako hondakinek eragin nabarmena izango dute itsas hondoetan. Gainera, hegalaburrak oso jatunak dira (egunean bi eta sei kilo arrain bitartean jaten dituztela kalkulatu da), eta horren ondorioz Kantauriko kostaldea sunsituko da. Datu garrantzitsu bat da hegalaburra mundu osoan gehien ustiatzen den espezieetako bat dela,



## URDAIBAIK DONANAREN INGURUMEN-BALIO BERA DU, ETA MEREZI DU BABESA ERRESPETATzea. KOSTALDE GUTXI GERATZEN ZAIGU HAIN KONTSERBATIO-EGOERA ONEAN

LOREA FLORES, GREENPEACE EUSKADIKO BOZERAMAILEA

batez ere legez kanpoko arrantzan eta gizentzeko haztegietan (haztegien ahalmena arrantza-kuota baino askoz handiagoa da, eta horrek gehiegizko arrantza sustatzen du). Azkenik, gizentzeko haztegiak nagusitzeak arrantza-kuotaren banaketa zuzenik ez egotea eta konpainia gutxi batzuek betidanik ehunka arrantzalek partekatatu duten guztion baliabide bat bereganatzea eragiten du.

Kantauri itsasoko ertzetik hedatzen ari den beste arazo bat **turistifikazioa** da. Urdaibain egin nahi den proiektuaz gain, beste leku batzuk ere egoera beraren arriskuan daude, **Santa Klara uhartea**, hain zuzen ere. Toki pribilegiatua da, non itsas hegaztien habiak egiten dituzten eta non betidanik errespetatu egin diren babestutako espezieak dauden. Kontserbazioaren aurka, bisitak egiteko ordutegia luzatu egin dute.<sup>3</sup> Ekologistak Martxan

erakundeak salatu duenez, Donostiako baliabide naturalak eta kulturalak turismo-sektorearen interes pribatuen eskura jarri dira.<sup>4</sup> **Gaztelugatxe** da, zoritxarrez, jende gehiegi erakartzen duen beste leku bat. Mugarik gabeko bisitarientzako ikuskizuna bihurtu da, eta lekuak mugatu dira baina, aldi berean, aparkalekuen gunea handitu egin da.<sup>5</sup>

**Donostia** ere ari da turistifikazioa jasaten hirigunean, eta oraingoz ez da baimenik emango hotel eta turismo-etxebizitza berriak irekitzeko. Udalaren beraren txostenek aitortzen dute turismoaren hedapenak eragin zuzena izan duela herritarren erabilera eta gozamen normalizatu eta lasaian.<sup>6</sup> Era berean, **Bilbon**, turistifikazioa oraindik hain agerikoa izan ez arren, kontrako ondorioak nabaritzen hasi dira. Epela izan arren,

<sup>1</sup> [https://www.eldiario.es/euskadi/piscifactoria-fallida-central-nuclear-lemoiz-cerca-hay-proyectos-avanzados-fase-estudio\\_1\\_10028471.html](https://www.eldiario.es/euskadi/piscifactoria-fallida-central-nuclear-lemoiz-cerca-hay-proyectos-avanzados-fase-estudio_1_10028471.html)

<sup>2</sup> [https://www.eldiario.es/euskadi/piscifactoria-fallida-central-nuclear-lemoiz-cerca-hay-proyectos-avanzados-fase-estudio\\_1\\_10028471.html](https://www.eldiario.es/euskadi/piscifactoria-fallida-central-nuclear-lemoiz-cerca-hay-proyectos-avanzados-fase-estudio_1_10028471.html)

<sup>3</sup> <https://www.publico.es/sociedad/turistificacion-norte-espana-corre-riesgo-repetir-errores-modelo-mediterraneo.html>

<sup>4</sup> <https://www.ecologistasenaccion.org/313080/no-a-la-explotacion-turistica-de-la-isla-santa-clara-la-isla-para-la-naturaleza-y-sus-nidos/>

<sup>5</sup> <https://www.elsaltodiario.com/opinion/lemoniz-urdaibai-pasando-gaztelugatxe>

<sup>6</sup> <https://elpais.com/espana/2023-09-12/san-sebastian-plantea-prohibir-la-apertura-de-nuevos-hoteles-y-declarar-saturada-la-zona-centrica-de-la-ciudad.html>



### LEMOIZEKO ZENTRAL NUKLEARRAREN ORTOARGAZKIA

[Iturria](#)

badirudi udaleko gobernua, auzoko elkarte batek bultzatuta, prest dagoela turismo-etxebizitza gehiago irekitzen mugatzeko edo turismo-tasa bat sustatzeko.<sup>7</sup>

### 2030ean itsas mailaren igoerak mehatxatutako kostaldeko tokiak

Higadura eta itsas mailaren igoera mehatxu larriak dira Euskadiko itsasertzerako. Itsas maila igotzeko eta kutsadura areagotzeko egungo egoeran, eta Nazio Batuetako Klima Aldaketari buruzko Gobernuarteko Aditu Taldearen Ebaluazioko Seigarren Txostenean (IPCC, 2021)<sup>8</sup> ezarritako adostasun zientifikoaren arabera, kostaldearen hainbat zatiri eragingo diete higadurak eta itsas mailaren igoerak.

Euskal itsasertzaren kasuan, sei urteko epe laburrean itsas mailaren igoerak eragina izango du ia kostalde guztian.

AZTI zentro teknologikoak uste du itsasoaren maila 3,2 mm igotzen ari dela urteko, eta aurreikusten da mendearen amaierarako 50 eta 80 cm bitartean igoko dela euskal kostaldean (horrek kostaldea 50 eta 100 metro bitartean atzera egitea ekarriko luke). Igoera horrek itsasertzeko hainbat tokitan uholdeak egotea eragin dezake marea biziak daudenean, eta portuetan, kai-muturretan eta pasealekuetan kalteak eragin ditzake ekaitzak daudenean. Horren ondorioz hondartza eta paduren zati handi bat galduko dela aurreikusten da.

Klima-aldaketak Espainian izango duen eraginari buruzko txostenean aipatzen denez, itsas mailaren igoerak eragin negatiboa izango du hondartza askotan, eta horrek ondorioak izango ditu Gipuzkoako hondartzen % 70ean eta Bizkaiko hondartzen % 45ean.<sup>9</sup>

Klima-aldaketak espezieei nola eragiten dien ere aztertu du AZTI zentroak. Aztertutakoen artean, **berdela** errunaldian iparralderantz doala eta **antxoaren** errunaldia eta **hegaluze** gazteen migrazioa aurreratu egin direla ikusi dute. **Aingira** espezie ahulenetako bat da, dagoeneko egoera larrian baitago.<sup>10</sup>

<sup>7</sup> [https://www.elcorreo.com/bizkaia/bilbao-asume-pisos-turisticos-problema-prepara-restricciones-20240530174025-nt.html?vli=su-not-s-9&vca=0601-320-buenos\\_dias\\_bizkaia\\_0343&vso=nw&vmc=buenos\\_dias\\_bizkaia\\_0343&vus=11eb6600899b410c8cecaed8a017aba0&j=646465&sfmc\\_sub=106660938&l=140\\_HTML&u=44420230&mid=510002914&jb=7](https://www.elcorreo.com/bizkaia/bilbao-asume-pisos-turisticos-problema-prepara-restricciones-20240530174025-nt.html?vli=su-not-s-9&vca=0601-320-buenos_dias_bizkaia_0343&vso=nw&vmc=buenos_dias_bizkaia_0343&vus=11eb6600899b410c8cecaed8a017aba0&j=646465&sfmc_sub=106660938&l=140_HTML&u=44420230&mid=510002914&jb=7)

<sup>8</sup> [https://www.ipcc.ch/report/ar6/wg1/downloads/report/IPCC\\_AR6\\_WG1\\_SPM\\_Spanish.pdf](https://www.ipcc.ch/report/ar6/wg1/downloads/report/IPCC_AR6_WG1_SPM_Spanish.pdf)

<sup>9</sup> [https://www.miteco.gob.es/content/dam/miteco/es/cambio-climatico/temas/impactos-vulnerabilidad-y-adaptacion/11\\_zonas\\_costeras\\_2\\_tcm30-178502.pdf](https://www.miteco.gob.es/content/dam/miteco/es/cambio-climatico/temas/impactos-vulnerabilidad-y-adaptacion/11_zonas_costeras_2_tcm30-178502.pdf)

<sup>10</sup> <https://www.azti.es/cambio-climatico-principales-resultados-de-nuestra-labor-investigadora/#:~:text=El%20nivel%20del%20mar%20est%C3%A1,diques%20y%20paseos%20durante%20temporales.>



# EUSKADI

## 2030EAN ITSAS MAILAREN IGOERAK MEHATXATUTAKO KOSTALDEKO TOKIAK

*Iturria*

